



2012KO OTSAILAREN 23KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabiko otsailaren hogeita hiruan, iluntzeko zazpi eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Andoitz Garmendia Zubeldia, Maialen Aldasoro Aranburu, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu Estensoro, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel, Felix Urkola Iriarte eta Juan Manuel Serna Portugal.

Milagros Madrazo Rada zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onspenera aurkezten da 2012ko urtarrilaren 26an egindako bilkurako akta.

Irastortza zinegotziak (EAJ) esaten du haur lapurtuen inguruko mozioan eskari bat luzatu ziola alkateari, eskari hori gai horren jarraipena egitea zela eta hori ez dela jaso akatan.

Gainontzean eta bertaratutako guztien aldeko botuekin akta idatzita dagoen moduan onartzen da.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- UDAL ARLO PUBLIKOAREN ERREFORMAREN INGURUKO MOZIOA.-

EAJren udal taldeak aurkeztutako mozioak honela dio:

“Udalaren autonomia printzipioak eskatzen du onartu beharra dagoela udalaren dimentsio politikoa eta dimentsio horrek lurralde izaerako botere publikoa izatea esan nahi duela. Printzipio honen arabera, udalen eskubidea da beren herritarrei eragiten dieten gaiak arautzea eta kudeatzea, horren erantzukizuna udalak bere-berea duelarik, hurbiltasuna baliatuz Ongizate Estatuan maila hobea lortzen laguntzeko.

Aurreko horren ondorioz, Lazkaoko Udalbatzak bere desadostasuna adierazten du abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege Dekretuko edukiaren zenbait neurrirekiko, murriztu egiten dituztelako udalak bere kabuz antolatzeko eta bere autonomia izateko gaitasun-printzipioak, batez ere funtzio publikoaren arloari dagozkionak, izan ere alde bakarrekoa eta orokorra baita ezartzen den muga kontratazioak egin behar direnerako, erakunde bakoitzaren behar eta egoera bereziak kontuan izan gabe.

Aipatutako 20/2011 ELDko zenbait xedapen ere oztopo handia dira, gure iritziz, Funtzio Publikoaren kudeaketa zuzena egiteko dauden funtsezko printzipioen aurka, izan ere balio gabe utzi arazten baititu negoziaketa kolektiboaren baitan lortutako akordioak.

Hala ere, Errege Lege Dekretu horrek berak ezartzen dituen mugetatik libre uzten ditu beste erakunde batzuk, adibidez Estatuko Segurtasun Indarrak (3. atala, 5. puntua, c txatala) eta Indar Armatuak (3. atala, 5. puntua, d txatala). Hori inkoherentzia nabarmena dela pentsatzen dugu eta nekez uztar daitekeela defenditzen ditugun balio zibiko eta gizartearen aurrerapenekoekin.

Horregatik guztiagatik, eta zerbitzu publiko on bat emateko Udal honek hartua duen konpromisoa betetzea mugatu egin dezakeelako kezkatuta, egokia iruditzen zaigu:

- 1.- Udal autonomiaren printzipioak irmo defenditzea, kudeaketarako ballabide behar-beharrezkoa delako herriko politika, bertatik bertara, modu eraginkor eta zentzudunez egiteko.
- 2.- Zerikusia duten erakunde guztiei deitzea behar diren neurriak har ditzaten Estatuko legegaria ez dadin sartu udalaren autonomia eta bere burua antolatzeko gaitasuna mugatzera.
- 3.- Estatuko legelariari eskatzea, aurrean duen egoera ekonomikoak hartara behartzen duela pentsatuz gero, azalpen atalean esandako bi erakundeei ezar diezazkiela aipatu ELD horretako neurri murriztaileak, eta indargabetu ditzala 3. atalaren 5. puntuko c eta d txatalak, Estatuko Segurtasun Indarrak eta Indar Armatuak erabaki murriztaileetatik libre utzi gabe."

Irastortza zinegotziak (EAJ) esaten du mozio honen inguruan alkateari galdetu nahi diotela ea gai honek udal honetan izan dezaken eragina aztertzeke inolako txostenik eskatu den.

Alkateak erantzuten dio ezetz. Gehitzen du ze eragin izango litzuzkeen jakiteko azterketa sakona egin beharko litzakela. Esaten du baita ere badaudela mozio honetan aipatzen ez diren beste puntu batzuk ere, sakonki aztertu beharrekoan.

Mendia zinegotziak (Bildu) esaten du alkateak esandakoaz gain aipatzekoa dela hauek ez direla langileen aurka ematen ari diren neurri bakarrak, aurretik ere eman direla. Esaten du beraiek mozio hau onartzekotan beste hainbat puntu sartu beharko liratekela eta lukela izan behar bakarrik erreforma bati ezetza emateko baizik eta erabaki ekonomikoak eta politikoak Euskal Herrian har daitezela eskatzeko. Eta bukatzen du esanez guzti honengatik abstenitu egingo direla.



Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du mozioan esaten diren gauza gehienekin bat datorrela eta alde legokela baldin eta Estatutaren segurtasun indarren aipamen hori egin ez balitz, eta ez duela ulertzen hori zergaitik sartu den mozioan, eta horren aurrean abstenitu egingo dela.

Urkola zinegotziak (EAJ) erantzuten dio esanez Estatuaren segurtasun indarrena dekretuan aipamen berezia egiten zaielako dela.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du hasieran aipatu duten txostena egitearena oso garrantzitsua ikusten dutela, eta eskari horren alde positiboa hartzeko eskatzen duela.

Guzti honen ondoren, gaia bozketan jartzen da eta osoko bilkurak, aldeko 4 botu (EAJ), aurkako boturik gabe eta 8 abstentzioz (Bildu, PSE-EE) mozioa onartu egiten du.

IV.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Albisu zinegotziak (EAJ) esaten du aurreko osoko bilkuran, zaborren gaiaren inguruan, erabakia hartuta zegoen ala ez galdetu zuela eta ezetz erantzun zitzaiola baina atzo prentsaurrekoa egon zela eta prentsaurreko horretan esan zen datorren hilean atez ateko bilketa martxan jarriko dela. Eta hori horrela jakin nahi duela ea gaia aztertu behar den ala erabakita dagoen eta aztertu behar bada eskatzen duela gaia ingurugiro, hirigintza eta ogasun batzordeetan aztertzea.

Alkateak erantzuten dio gaia hurrengo osoko bilkurara ekarriko dela bere onarpenarako eta aurretik gaiaren inguruko datuak emango direla eta gaiaren inguruko batzar irekia egiteko asmoa dagoela. Baita ere esaten du batzar ireki horretan batzorde guztietako jendeak parte hartzeko aukera izango duela.

Jendartetik lagun batek gai honen inguruko bere iritzia eman du.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak eta hogeirenean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

